



## Kolore moreko aldarrikapena nagusi

Martxoaren 8ko ekintza ugaritan parte hartzeko aukera izango dute lasarteoriarrek egunotan. Elkarretaratzea deitu dute iganderako. / 8-9

TXINTXARRI

### Ezezkoa berriro ere

Zigorak Ezartzeko Frantziako Auzitegiak ez du onartu Ibon Fernandez Iradiren zigorra etetea / 6-7

Andaluzia Eguna ospatu dute Semblante Andaluz elkarteko kideek eta herritarrek asteburuan zehar / 3

Naroa Furundarena atletak zazpigarren postua eskuratu du Espainiako Absolutu Txapelketan / 12

**Bideo Lagunak**  
**TIEN 21**  
Etxekotresna elektrikoetan adituak

**DESKONTU EZIN HOBEAK**

**20% deskontuak etxeke tresnerian**

**TELEBISTETAN DESKONTU BEREZIAK**  
(modeloen aldaketengatik)

**martxoko zozketa!**  
Sartu **f** Bideo Lagunak **MAGEFESA** sukaldeko ontziteria eskura dezakezu!

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | [www.bideolagunak.com](http://www.bideolagunak.com)



Oriarte BHI Landaberri eraikineko jolaslekua izango da 'Patioak irekita' ekimenaren guneetako bat. TXINTXARRI

# 'Patioak irekita' ekimena jarri du martxan udalak

Martxoaren 2tik, astelehena, Oriarte BHI Landaberri eraikineko, Landaberri ikastolako Garaikoetxea eraikineko eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Sasoeta eraikineko jolaslekuak eskola-orduz kanpo erabili ahal izango dira

## Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak *Patioak irekita* ekimena aurkeztu du. Herriko hiru ikastetxeetako jolasleku estaliak erabili ahaliko dituzte haur eta gazteek eskola-orduetatik kanpo. Lasarte-Oriako alkate Agustin Valdivia eta Nagoren Duran Parthartze batzordeko buruak azaldu dituzte ekimenaren nondik-norakoak.

Horren bitartez, martxoaren 2tik aurrera, Oriarte BHI Landaberri eraikineko, Landaberri Garaikoetxea eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Sasoeta eraikineko jolaslekuak herritarrei irekiak egongo dira ordutegi zehatz batean.

Agerraldian aipatu dutenez, udaltzainak arduratuko dira jolaslekuak ireki eta itxeaz. Asteazkenean, eskola amaitu eta 20:00ak arte egongo dira erabilgarri hiru guneak eta asteburu eta jai egunetan, 16:00etatik 20:00etara.

"Haurrek euren egunerokoan ezagutzen dituzten eremuak dira

eta horregatik seguru egon ahal dira", adierazi du Parthartze saileko buru Nagore Duranek.

Orain arte, Oriarte BHI Landaberri eraikina erabiltzeko baimena zuen bakarrik. Ikastetxeekin hitz egin eta Hezkuntzara baimena eskatu ostean, beste bi guneak gehitu ditu udalak eskaintzara. "Oriarte BHI Landaberri eraikineko jolaslekuaren baimena lortu zen aurreko legealdi batean eta gazteek erabiltzen zuten. Moldaketa bat egingo da eta ordutegi zehatzagoa izango du, hirurak ordutegi bera izateko", adierazi du Lasarte-Oriako alkate Agustin Valdiviak.

Horrez gain, ekimena *Euritan jolasean* prozesuaren

**GUNEAK ASTEBURU  
ETA JAI EGUNETAN,  
16:00ETATIK  
20:00ETARA EGONGO  
DIRA IREKITA**

hausnarketaren ostean sortutako emaitzen ondorio dela azpimarratu du Valdiviak. "Jolasleku estaliak dira eta jolasteko, zein egoteko eremuak dituzte. Horrelako guneak izateko eskaera egin zuten herritarrek eta eremu horiek irekitzea pentsatu zen".

## Herrian sei eremu estali

*Patioak irekita* egitasmoari esker, laster Lasarte-Oriako eguraldi txarra dagoenean kirola egin edo jolasean egoteko sei eremu estali egongo direla jakitera eman du. "Atsotakar parkean, egoteko gune bat estali zen. Zaintzaileak ere gustora egoteko lekuak behar baitituzte. Eremuan mahaiak eta bankuak ere jarri ziren eta harrera ona izan du. Basaundi bailaran aurki jolasleku estalia izango da. Isla plazako estalkiaren lehiaketa esleitu dugu".

Alkatearen ustez, eremu horiek guztiak herritarren eskaerari erantzuna emateko nahikoak dira.



Astelehen honetan ere, emakumeen ahotsa entzun zen pentsiodunen bilkuran. TXINTXARRI

## Emakume langileen eta pentsiodunen egoera hizpide

Lan munduko genero arrakala eta pentsioen arteko ezberdintasuna salatu du pentsiodunen mugimenduak

## Txintxarri

Emakumeen Nazioarteko Egunaren atarian, astelehenean emakumeak izan ziren protagonista Lasarte-Oriako pentsiodunen eta erretiratuen asteroko bilkuran. Emakumeen ahotsak egin zituzten aldarrikapenak eta haien hitzek hausnarketarako tarte ere eman zuten.

Pentsiodunen eta erretiratuen mugimenduak emakumeen berdintasunaren aldeko borrokarekiko errespetua eta babesa adierazi nahi izan zuen saioan, bereziki pentsioen inguruko gaietan.

Enplegu txirotasuna, behin-behinekotasuna eta prekaritatea feminizatuta daudela gogoratu zuen mugimenduak. Pentsioei dagokienean, txosten ezberdinen arabera, gizonezkoek, batez beste, emakumezkoek baino %35-40 gehiago jasotzen dutela ere azpimarratu zuten.

Horrez gain, Miren Etxezarreta ekonomialariaren hitzak entzun ahal izan ziren eta Gipuzkoan eskaini dituen hitzaldioan laburpena egin zuten. Egoera politikoaren errepro txikia ere egin zuten, herritarrei tarte eman baino lehen.



TXINTXARRI

## Saharari elkartasuna adierazten

Pasa den asteko ostegun arratsaldean elkarretaratzea egin zuten Euskal Herriko Lagunak Mendebaldeko Saharakoekin Bat elkarteak eta udal korporazioko hainbat alderditako ordezkariak. Argazkian ikus daitekeen moduan, *Maroko Saharatik at!! Independentzia* lelopean egin zuten ekintza, Okendo plazako arkupeetan.

# Andaluzia Eguna aitzaki hartuta, asteburuan festa

Ostiraleko Ohorezko Ardoak ireki du aurtengo egitaraua, eta hainbat jarduera egin dituzte gero, asteburuan. Dantzaldiak, meza rozieroa, bazkaria eta beste zenbait ekintzetan parte hartu dute Semblante Andaluzeko kideek eta udal ordezkariak

## Txintxarri

Otsailaren 28an 40 urte bete zituen Andaluziako Estatutuak. Andaluzia Eguna bera ospatzeko arrazoi nahikoa izango ez balitz, urteurren biribilak beste bat gehitu dio. Ostiral iluntzean Ohorezko ardoarekin egin zuten topa Atsobakar auzoko egoitzan. Bertan izan ziren, Agustin Valdivia alkatearekin batera, Jon Antxordoki eta Boris Nogales, Nuria Fernandez eta Nagore Duran, Joxe Pikabea, Pablo Barrio eta David Ares. Elkarteko ordezkariak eskerrak eman zizkien bertaratzeagatik, topa egin aurretik.

Larunbatean, haurrak izan ziren protagonistak. Elkarteko agertokian dantzan aritu ziren Duende eta Gitanillas del Alba taldeetako neskatokak. Hainbat pieza dantzatu zituen talde bakoitzak, baina ez zen txikienentzat nahikoa izan, antza, goian zeudenei begira dantzan jarraitu baitzuten. Ondoren, Bea Egizabalek eta Cesar Marcosek amonarengandik ikasitako ipuinak partekatu zituzten haurrekin. Aldi berean, aurpegia margotzeko aukera zuten haurrek, baina nahiago izan zuten ipuina amaitu arte itxaron. Askaria eginda eta



Elkarteko ordezkariak eta udalekoak, Ohorezko Ardoarekin brindisa egiten. TXINTXARRI

jolasean amaitu zuten arratsaldea.

Igandean, eguerdian hasi zituzten jarduerak. Zumaburuko Arantzazuko Ama parrokia bete zuten herritarrek meza rozieroa entzuteko. Apaizaren hitzei tartekatuta, otoitzak eta kantak abestu zituen Semblante Rociero koruak. Duende taldeko kideek, berriz, eskaintzak egin zituzten: Andaluziako gozoak, olioak eta olibondo adarra kasu. Amaiera gisa, *Salve rociero*-a abestu zuen abesbatzak, eta ondoren, neskatok dantza egin zuten.

Edozein ospakizunek duen ezinbesteko osagaia da janaria,

eta honetan ez du hutsik egin. Lagun ugari joan ziren bazkaria eta elkarlea lepo zegoen, Ohorezko mahaian alkatea, Lourdes Acevedo, Jon Martin, David Ares eta Boris Nogales eseri ziren. Elkarteko presidentearen eta alkatearen agurraren ondoren, Andaluziako ereserkia abestu dute bertaratutako guztiek, jaki goxoak dastatu aurretik. Jandakoa jaisteko, Aurelio Gallardok dantzan jarri ditu. Extremadurarrak fandango batzuekin hasi du saioa, baina pare bat abesti geroago, jendea agertokiaren aurrekaldera jaitsi eta runbak jotzeari ekin dio, festa giroa piztuz.



NEURE KABUZ

AIZPEA AMAS

## Sendagaia

Denak gaude birusaren eraginpean, haurrengandik hasi eta zaharrenetaraino. Pertsona batzuek dituzten sintomak agerikoak dira, baina, beste zenbait kasutan, lausoagoak dira eta hautematen zailagoak. Izango da kutsatuta dagoela konturatuko ez denik ere.

Alarma guztiak piztuta dauden honetan, ospitaleetatik maskarilak lapurtzeraino iritsi da jendea, beldurrarengatik edo. Hauspoa badu izu horrek, komunikabideak etengabe piztuta mantentzeaz arduratzen baitira. Egunkariaren azaletako titular nagusietan agertzen da, telebistako informatiboetan minutuak eta minutuak pasatzen dituzte gai hori jorratuz, eta sare sozialetan ez dago beste hizpiderik.

Tantaka hasi dira lehen kasuak agertzen geurean ere. Seguraski gehiagora joango dira datozen asteetan, eta kezkatzeko modukoa bada. Orain, gehiegi kezkatuta ote gauden? Ikusteko dago.

Bada, ordea, beste birus bat pertsonen %100ari eragiten diona, belaunaldiz belaunaldi transmititzen joan dena, erraietaraino iritsi zaiguna, eta gaitetik kentzeko nahikoa lan ematen ari dena. Birus hori matxismoa da. Komunikabideetatik, agian, ez dugu hainbeste informazio jasoko, baina baditugu kezkatuta egoteko arrazoak: 2003. urtetik 103 emakume hil ditu Euskal Herrian. Zerbaki lazgarri horiek muturreko sintomen kasuak dira, baina zein emakumek ez ditu noizbait matxismoaren oinazeak pairatu behar izan?

Birus horrek badu, ordea, sendagaia, eta hori feminismoa da. Martxoaren 8ren harira, antidotoa ahalik eta jende gehiagorengana zabaltzen saiatu behar gara, hasteko, emakume hildako, bortxatu, jipoitu edo esplotatu gehiago egon ez daitezela, eta, ondoren, pausoz pauso, matxismoaren sintoma guztietatik, behingoz, askatzeko.

## Arranbideko eskailera mekanikoen bigarren tartea itxiko dute

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi du itxi egingo duela Arranbide kaleko eskailera mekanikoen bigarren tartea, datorren astean, martxoaren 9tik 13ra -bi egunak barne-. Kateak aldatuko dituzte. Orona enpresak egingo ditu lanak, eta aurrekontua 47.902,79 eurokoa izango da.

## Ura eta estolderiaren tasa ordaintzeko azken eguna, martxoak 16

Martxoaren 16a izango da ura eta estolderiaren tasa ordaintzeko azken eguna, astelehena. 2020ko hirugarren hiruhilekoari dagokion zenbatekoa kobratuko zaie. Udalak adierazi du egun horretarako ordaindu ez duten herritarrei zenbatekoa eskatuko zaiela, gaitzargu batekin.

## Ipuin kontaketa berezia...

Asmakizunak, abestiak eta poesiak ... ipuinak lantzeko!

HH3-HH4koentzat

**Martxoak 18, 17:45ean**  
Anbulatorio gaineko 2. solairuan.

Izena emateko:  
Ttakuneko bulegoan,  
aisia@ttakun.eus  
Whatsapp: 695785392



**NOAOA**  
BIDAIAK

**ESLOVENIA & ISTRIA**

**ZETAREN BIDEA**  
(Uzbekistan)

**TALDE BIDAIAK**

T.: 943 373 613  
info@noaoa.eus



Manifestazio jendetsua egin zuen Buruntzaldeako Ernaik, herriko kaleetan barrena. Erdigunea zeharkatu zuten. TXINTXARRI

# Buruntzaldeako gazteen protesta

Zubietako erraustegiaren aurka manifestazioa egin du Buruntzaldeako Ernaik, Lasarte-Oriako kaleetan. "Alferrikako azpiegitura kutsakor eta garestiak" ez erakitzea galdegin diete agintariei. Zaldibarko hondakindegia afera argitzea exijitu dute

## Txintxarri

Buruntzaldea eskualdeko ehunka gazte manifestatu ziren Zubietako erraustegiaren aurka Lasarte-Orian, otsailaren 27an. Zaldibarko hondakindegiko afera –besteak beste, bi langilek lur azpian segitzen dute, otsailaren 6an bertan gertatutako luiziak harrapatuta– argitzeko ere eskatu zuten. Arratsaldeko zazpiak pasatxo abiatu zen mobilizazioa Okendo plazatik. Kale Nagusirantz abiatu ziren gero, Largoenea kaleko biribilgunetik sartu eta Zumaburura bidean. PSE-EEK eta EAJK "ardura zuzena" dutela iritzita, sozialisten herriko etxe ondotik pasatzean leihoetan *Hiltzaileak* lelodun pegatinak itsatsi eta zaborra bota zuten sarrerara; jeltzaileen batzoki ondotik pasatzean, berriz, pare bat zabor poltsa piztu zituzten, eta afixa bat jarri. *Zuen akordioek*

*hiltzen gaituzte* irakur zitekeen. Largoeneako biribilgunetik berriro pasa eta Kale Nagusirantz joan ziren manifestariak. Tajamarrera iristean, bat egin zuten ekintzaile batzuekin: bengalak piztuta, Zaldibarko afera argitzeko eskatu zuten, eta lur azpian jarraitzen duten bi langileei elkartasuna adierazi –Alberto Sololuze eta Joakin Beltran–. Pintore kalerantz jo zuten gero, Geltoki kaletik bueltatu, berriro Kale Nagusira sartu eta Okendorantz joateko.


## Kudeaketa "negargarria"

Okendon egindako adierazpenetan, Ernaik salatu zuen "negargarria" izaten ari dela hondakin kudeaketa Euskal Herrian: agintariak egin dituzte erantzule. "Zaldibarko aferak eta Zubietako erraustegiak hala erakusten dute". Gogoratu zuten Zaldibarko

hondakindegiko bi langilek lurpean jarraitzen dutela. Zubietako erraustegia "probaldi fasean" dagoela-eta, kritikatu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako promesetatik "urrun" geratu dela azpiegitura hori. "Gure osasuna kaltetzen duten gasak isurtzen ditu, bizitzak arriskuan jarritz".

Agintariei galdegin diete "alferrikako azpiegitura kutsakor eta garestiak" eraikitzeari uztea, eta leporatu "aurpegi garbiketa saiakera penagarri bat" egin izana. "Beharrezkoa da guztion bizitzak erdigunean jartzea, ez

**AGINTARIEK IRAGARRI DUTE HILABETE BUKAERAN BUKATUKO DELA PROBALDI FASEA ERRAUSTEGIAN**



Lasarte-Oriako PSE-EEren herriko etxea, otsailaren 27an. TXINTXARRI

## "Erasoa" salatu du PSE-EEK

Lasarte-Oriako alderdi sozialistak salatu du otsailaren 27ko arratsaldeko manifestazioan "erasotu" egin zutela herriko etxea: Alderdi horretako idazkari Iñaki Mugicak adierazi du "nekatuta" daudela sozialistak herriko etxean "erasoak" jasotzeaz. Manifestarien jarrera "antidemokratikoa" dela nabarmendu du. Ohar bidez, zehaztu du Ibon Fernandez Iradiren alde protestan ari zirela, baina zuzendu egin du hori gero, esanez "beste arrazoi batzuegatik" izan zela, zehaztasun gehiagorik eman gabe. Hiltzaileak lelodun pegatinak itsatsi eta zaborra bota dute sarreran manifestariak, sabaia kolpatu bitartean. Zubietako erraustegiaren aurka eta Zaldibarko hondakindegia afera argitzearen alde protesta egin dute; PSE-EE eta EAJ egin dituzte horien erantzule.

"Lasarte-Orian urratsak egin behar ditugu elkarbizitza normalizatzeko, eta gisa horretako erasoek ez dute laguntzen", azpimarratu du Mugicak. "Herriko alderdi politiko eta eragile guztiok egin behar dugu horren alde", gehitu du.

## Lasarte-Oriako EAJren elkartasuna

Lasarte-Oriako EAJK elkartasuna adierazi die herriko sozialistei. Bozeramaile Jon Antxordokiren aburuz, "indarraren erabilera iragana da" gizaratean. "Ez da nahikoa esatea garai berriak direla, ohitura zaharrak atzean utzita erakutsi behar da hori". Jeltzaileek salatu dute euren batzokietan ere "antzeko erasoak" pairatzen ari direla. "Erasoa ez da herrigintza egitea; gogor gaitzesten ditugu jarrera horiek". Lasarte-Oriako udal talde politiko guztiei eskatu die herriko etxean gertatutakoa gaitzesteko.

Bizikidetzaren inguruan ere jardun da Antxordoki: "Gure herriak bilatzen duen bizikidetzaren demokratikoa indarkeriaren gaitzespen esplizituan eta aukera politikoaren aniztasunarekiko errespetuan oinarritu behar da. Erradikal horiek jakin behar dute, jardun penagarri horiek gorabehera, sendotzen ari dela elkarbizitza Lasarte-Orian".

gutxi batzuen etekin ekonomikoa". Donostiako manifestazioarekin bat egin zuten bukaeran.

## Manifestazioa Donostian

Larreko Mahaia osatzen duten eragileek deituta, milaka pertsona manifestatu ziren joan den larunbatean Donostian. Tartean, lasarteoriatar ugari. Easo plazatik abiatu, eta Bulebarreraino iritsi ziren, *Osasuna, ekonomia eta klimagatik, ez erre etorkizuna!* lelopean burutu zuten protesta ekintza jendetsu hori.

Hasiera batean, agintariak iragarri zuten martxoaren 3an jarriko zutela ofizialki martxan erraustegia, baina aurreikuspenak ez dira bete: martxo bukaeran edo apirila hasieran izango dela adierazi dute. Probaldi fasean egonik ere, azpiegitura horrek 400 tona zabor erretzen ditu egunero. %100ean martxan hastean 500 tona hondakin erretzera iritsiko dela baieztatzen du Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen diputatu Jose Ignacio Asensiok asteon.

## Bertsoen doinuak dantzatu dituzte Manuel Lekuonan

'Errimak bi oinetan' ikuskizuna ekarri du Haatik dantza konpainiak Lasarte-Oriako kultur etxera

### Txintxarri

Ez da ohiko dantza ikuskizuna Manuel Lekuonara joandakoa ikusitakoa. Argiztapen berezitik haratago, planteamendua bera da aipagarria, izan ere, dantzariak bertsolarien lekuan jartzen

baitira. Bertso saioetan bezala, gai bat proposatu, eta haren inguruan inprobisatuta mugitu behar dute gorputza. Ez dute beraiek bertsoan egiten; baina bertsolari ezagunen ahotsak jarraitzen dituzte pausoz pauso.

Gai-jartzaile lanetan eskarmentu zabala duen Unai Elizasuk proposatu dizkie gaiak. Lehen ariketa, azkena izan ohi da, kartzelakoa. Gaia: "Potea jarri duzue, denek konbinatua eskatu dute eta zuk zuritua". Modu oso bestelakoetan sortu du bakoitzak bere proposamena. Aulkietan banan-banan esertzen joan dira eta bertsolarien modura, azken errima abesten zutela irudikatu dute. Horren ondotik, bakarka, binaka edo taldean, ariketaz ariketa joan dira osatzen saioa.



Haatik konpainiako dantzariak *Errimak bi oinetan* ikuskizunaren une batean. TXINTXARRI



Aterpea elkarteak kideak eta udal ordezkaria ardo dastatzeak aurkezten. TXINTXARRI

## Tabernaz taberna ardo mota ezberdinak dastatzeko aukera

Laugarren ardo dastaketa antolatu du Aterpeak. Plaza mugatuak direnez, izena ematea ezinbestekoa da

### Txintxarri

Laugarren urtez jarraian antolatu du Aterpea merkatarien elkarteak ardo dastaketa, eta lau ostalarik parte hartuko dute aurtengoan: Buenetxea, Eguzki eta Zubieta taberneak, baita Viña del Mar kafetegiak ere. Horietatik lehena Buenetxea taberna izango da. Datorren astelehenean, martxoak 9, izango da hitzordua, eta Rioja Vega upeltegiko ardoa eskainiko dute.

Eguzki tabernan izango da bigarren ardo dastaketa saioa. Martxoaren 10ean egingo dute, eta Ramon Bilbao ardoa dastatuko dute. Horren ostean, ateak berriki ireki dituen Zubieta tabernaren txanda izango da. Martxoaren 11n izango da hirugarren saio hori, eta ardo zurien eskaintza egingo dute bertakoeak. Laugarren eta azken dastaketa Viña del Mar kafetegian izango da; martxoaren 12an. Hauek Bodegas Riojanas upeltegiko ardoa eskainiko dute.

Edariek batera, taberna bakoitzak berak prestatutako mokadutxo ere eskainiko dutela iragarri dute antolatzaileek.

Saio guztiak ordutegi bera izango dute; 19:00etatik 21:00etara, eta izena ematea ezinbestekoa da, plazak mugatuak baitira. Zazpi euroren truke eskuratu ahal izango dituzte txartelak, eta taberna parte hartzaile bakoitzak salgai ditu dagoeneko. Txartel bakoitzak saio bakarrera joateko balio du.

Aterpeako kideek eskerrak eman dizkiote Lasarte-Oriako Udalarari herriko komertzioak laguntzeagatik. Bide batez, udalak ere baliatu du egitasmoaren aurkezpen ekitaldia Aterpeari herriaren alde egiten duen lana eskertzeko. "Horrelako ekintzak garrantzitsuak dira Lasarte-Oriarentzat", azaldu du Nuria Fernandez Sozioekonomia batordeburuak.

## Lasarte-Oria 2020

# ARDO DASTATZEA

## Martxoak

### Ordua

## 19:00etatik 21:00etara

Izen ematea

# 7€

PLAZA MUGATUAK!

### Martxoak 9

## BUENETXEA Taberna

Upeltegia  
RIOJA VEGA

### Martxoak 10

## EGUZKI Taberna

Upeltegia  
RAMON BILBAO

### Martxoak 11

## ZUBIETA Taberna

Ardo zurien dantzatzea

### Martxoak 12

## VIÑA DEL MAR Kafet.

Upeltegia  
BODEGAS RIOJANAS





Ibon Fernandez Iradi eta larriki gaixo dauden gainontzeko euskal presoak aske uzteko mobilizazio ugari egin dituzte herrian. TXINTXARRI

# Entzun nahi ez duten oihua

Zigorak Ezartzeko Frantziako Auzitegiak ez du onartu Ibon Fernandez Iradi herritarraren zigorra etetea. Helegitea jarri dio presoak, espetxetik. Europaraino joateko prest daudela adierazi du defentsak. Epailaren erabakia "oso mingarria" izan da familiarentzat

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Ibon Fernandez Iradiren senideak egongelan. Telefono dei bat. Aparailua eskuetan hartu eta bozgorailua jarri. Ibonen ahotsa. "Ongi joan da, nekatuta nago luze joan delako. Dossier medikuak berrikusi ditugu: gure aldekoak dira, baina eurak zer erabakiko duten, inoiz ezin duzu jakin". Horrela hasten da *Oihu anizkoitza* dokumentala, 2014. urtekoa: esplikatzen du euskal preso lasarteoriatarren egoera zein den. Labur esanda: larriki gaixo dago, eta kartzelan, Lannemezanan (Frantzia), herritik 800 kilometrorra. 2013an esklerosi anizkoitza diagnostikatu zioten, nahiz eta aurreneko sintomak lehenago pairatzen hasi; degeneratiboa eta sendaezina da gaitza. Eritasun hori era egoki batean artatzeko espetxean jarraitzea posible ez zela iritzita,

epaitegiatiko bideari ekin zion Fernandez Iradik, defentsa abokatu eta senideekin batera, esklerosia zeukala jakin eta berehala. Oraindik ez da helmugara iritsi.

"Dossier medikuak gure aldekoak dira, baina eurak zer erabakiko duten, inoiz ezin duzu jakin". Ia sei urte pasa dira telefono hizketaldi horretatik, baina esaldi horrek deskriba dezake gaur egungo egoera zein den. Zigorrak Ezartzeko Frantziako Auzitegiak otsailaren 27an erabaki zuen Fernandez Iradiren zigorra ez etetea. 2019ko azaroaren 12an, auzitegi horretako epaileak aurkako deliberatu zuten: herritarraren kondena etetearen alde egin zuen. Erabakiaren berri izan bezain laster helegitea jarri zion prokuradoreak. Urtarrilaren 13an egin zuten epaiketa Dei Auzitegian.

"Auziaren mamia honakoa da: txosten medikuak eta hainbat datu eskuetan, lehen auzitegiko epaileek aztertu zuten ea praktikan betetzen ote ziren edo ez Ibon behar bezala artatua izateko baldintzak; ikusi zuten ezetz", azaldu du defentsa abokatu Maritxu Paulus Basurkok. "Oraingo epaileek, Dei Auzitegiok, esan dute teoriarik bete daitezkeela baldintza horiek, medikuak zehazten dituenak, tratamendua egokia izan dadin. Teoriarik dena egin daiteke, baina hori ez da kontua, baizik eta praktikan zergatik ez diren gomendioak

**"EPAILEEK DIOTE IBONEK TRATAMENDU BAT DAUKALA ETA ASKI DELA, EGOKIA EZ DEN ARREN"**

[tratamendu jarraitua, sendagaiak, terapia osagarriak, e.a.] betetzen, baina epaile horiek ez dute aztertu: haien irudiko, Ibonek badauka tratamendua, nahiz eta egokia ez izan; horrekin aski zaie. Onartezina da guretzat, legeak esaten duelako gaixo dauden presoak egokiro artatuak izateko eskubidea dutela, ez okerrago".

Abokatuak etsipenez hartu du Zigorrak Ezartzeko Auzitegiaren erabakia. Familiak ere bai. Fernandez Iradiren bikotekide Ainara Fresnedaren hitzetan, "oso mingarria" izan da: "Amorrua sentitzen dugu, min handia, eta inpotentzia: ikusten dugu ezin dugula ezer egin, gogorra da. Ibonentzat batez ere: bera esnatzen da goizero espetxean, berak pairatzen du egunero gaixotasuna". Fresnedak dio "gaizki" dagoela herritarra, "kolpea" jaso duela ezezkoaren berri izatean. "Lo gutxi egin du egunotan, tentsio askokoak izan dira horiek, eta estresak eta beste hainbat faktorek areagotu egiten dituzte esklerosi anizkoitzaren sintomak".

## Ezezko sistematikoak

Etsipenez, baina ez ezustean. Paulus Basurkok adierazi du bazuela zigorraren suspentsioa lortzeko itxaropena, aurkeztutako txostenetan "datu oso objektiboak" erakutsi dituztelako, baina azken erabakiaren berri izatean ez duela sorpresarik hartu, dei auzitegiak "sistematikoki" hartzen dituelako euskal presoekin lotura duten kasuen inguruko ezezko erabakiak. "Beldur hori bageneukan, beti jasotzen ditugulako ezezko erantzunak, nahiz eta baldintzak eta txostenak gure oso aldekoak izan". Fresnedak ere bazeukan itxaropena Ibonen zigorra eten zezaten, baina beldurra ere bai: "Borondaterik balute, Ibon kalean legoke honezkerok. Baina ez dute nahi, eta horretan jarraitzen dute. Erabakiak politikoak dira".

Epailearen deliberamenduaren berri izan eta berehala jarri zuen helegitea Fernandez Iradik, espetxean. Hilabeteak pasako dira hori aztertu arte, defentsa abokatuak azpimarratu duenez: "Ez dago gutuz zehazterik, baina urtebete inguru igaro daiteke". Hori ez da ona Fernandez Iradiren egoerarentzat: "Denbora gure aurka doa: esklerosi anizkoitza sendaezina da, eta espetxe barruan jarraituta, okerrera egin dezake Ibonen osasunak".

Beharrezkoa balitz, Europaraino joateko prest dagoela adierazi du Paulus Basurkok. "Kontuan hartu behar da ate hori jotzen duten kasuen %95a ez dela hara iristen, baina uste dugu nahikoa arrazoi eta datu baditugula esku artean bertara joateko eta kasua irabazteko". Pasa den astean "kolpea" jasota ere, Fresnedak badu esperantza, Ibonen kasua Europara iritsiko balitz, zigor etetea lortzearena: "Badirudi Europaraino gisa honetako epaiak ez daudela horren politizatuak". Dena den, badauki horrek luze jo dezakeela: "Horraingo iritsi bitartean, kartzelan jarraituko du Ibonek, esklerosiarekin, era egoki batean artatua izan gabe... Suspentsioa emango baliote, kalean legoke, tratamendu aproposa jasotzeko aukera gehiagorekin. Sei hilabeteko ikusiko luke neurologo batek; espetxean egonda, gaixotasun hori zuela jakin zuenetik, zortzi urtean behin bakarrik ikusi du mediku hori presentzialki, eta bideokonferentzia bidez beste behin. Lotsagarria da".

## Suspentsio egoeran, ez aske

Fernandez Iradiren defentsa abokatuak zehaztu du zigorraren suspentsioa lortzea ez dela gutuz aske geratzea: "Ibon askatuko balute, mediku batek sei hilabeteko berrikusiko luke bere egoera; esan ahal dezake espetxera bueltatzeko moduan dagoela denbora hori pasa eta gero; epaileak hartu beharko luke zigor-etete hori bertan behera uzteko erabakia. Egoera gogorra da presoarentzat".

Eskaera hori 2013an egin zuen aurrenekoz Ibon Fernandez Iradik, esklerosi anizkoitza zeukala jakin eta berehala. 2003an espetxeratu zuten, ETAKo kide izateko egotzita. 30 urtera kondenatu zuten. 2010ean espainiaratu egin zuten, irekita zeuzkan auziengatik epai zezaten. Bi urte pasa zituen han. Gaixotu egin zen orduan, eta berehala egin zuen okerrera bere egoerak: ohetik altxa ezinik geratu zen, bere kabuz jateko aukerarik gabe... Mielinitisa zeukala esan zioten, benetan gertatzen zitzaiona zehazki

**"ZORTZI URTEAN BI ALDIZ EGON DA IBON NEUROLOGOAREKIN; HORIETAKO BATEAN, KONFERENTZIA BIDEZ"**

jakin gabe. Kontsulta mediku bat, lehena, eskatu eta hilabete askora onartu zuen espetxeak. Bitartean, Fernandez Iradik ez zuen tratamendurik jaso.

Diagnostiko zehatza azterketa hori pasa eta bi urtera iritsi zen: esklerosi anizkoitza, gaixotasun degeneratibo eta sendaezin bat. Orduan ekin zion epaitegiak bideari. 2014ko ekainaren 20an, Zigorrek Ezartzeko Frantziako Auzitegiak ebatzi zuen ez zirela bateragarriak espetxean jarraitzea eta eritasun larri hori, ezin zuelako jaso behar bezainbesteko arreta medikua. Bi baldintza ezarri zizkieten Fernandez Iradiri: Frantziako bizitzeko zeukan debekua altxatzea eta Pirinio Atlantikoetako departamentutik at finkatzea bizitokia. Helegitea jarri zion erabaki horri. Irailaren 25ean aztertu zuen errekurtsioa Dei Auzitegiak, baina behin betiko erabakia atzeratzen joan zen epailea: urrira hasieran, 2015ko martxora gero, maiatzera... Behin betiko erabakia 2016ko abenduaren 15ean iritsi zen: Fernandez Iradiren zigorra ez etetea erabaki zuen epaileak.

2019ko irail amaieran jarri zuen mahai gainean berriro kasu hori Zigorrek Ezartzeko Frantziako Auzitegiak. Iragarri zuen hilabeteko epean emango zuela erabakiaren berri, baina azkenean azarora arte luzatu zen kontua, 12ra arte. Orduko horretan ere, txosten medikuak eskuetan, auzitegi hori Fernandez Iradiren kondena etetearen alde agertu zen. Gainera, epaileak adierazi zuen ez legokeela ihesaldi arriskurik herritarra kaleratuz gero. Prokuradoreak helegitea jarri zion deliberamendu horri, eta prozesua atzeratu egin zen berriro. Urtarrilaren 13an

egin zuten epaiketa, eta otsail amaieran jakinarazi erabakia. Duela hiru urte pasatxo egin bezala, epaileak erabaki du suspentsioa ez ematea.

"Itxaropena ez dugu sekula galduko; aurrera egingo dugu", azpimarratu du Ainara Fresnedak. Defentsa abokatu Maritxu Paulus Basurkok aitortu du "inpotentzia handia" sentitzen duela, ikusten duelako luzatzen eta luzatzen doala prozesua, eta ez dutela eteten Fernandez Iradiren zigorra. Baina ez du amore emango: "Borrokan jarraituko dugu".

### Mobilizazioak herrian

Urteotan mobilizazio ugari egin dituzte herritarrek, Ibon Fernandez Iradi eta gainontzeko euskal presoak askatzea galdeginez. Azkena, joan den asteko ostiralean, Lasarte-Oriako Sarek deituta. *Larriki gaixo dauden presoak* etxera lelopean, erdiguneko kaleak zeharkatu zituzten.

Sarek adierazi du "gizartea aktibatzen" eta norbanako, eragile eta alderdi politikoen artean "kontsentsuak bilatzen" segiko duela. "Duela bost urtetik daramagu hori egiten, sortu ginenetik". Fernandez Iradiren zigor etetea irabazteko buruzko epaia baloratu du, "ezinegona eta haserrea" adieraziz: "Kalean behar du Ibonek, duin arta dezaten, konfiantzazko medikuekin eta senitartean, eta ez heriotzaren bezperetan askatua izan".

'Oihu anizkoitza' dokumentala ikusteko QR lotura



## Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi gogoan

Joan den astean ekitaldiak egin zituzten herrian Argi Iturralde eta Iñaki Balerdiaren omenez. Duela hamazazpi urte zendu ziren biak, auto istripu batean, Juan Karlos Balerdi senidea bisitatzera zihoazela Almeriako espetxera. Ibilgailu horretan zihoan Joxe Balerdi ere, Juan Karlos eta Iñakiren aita eta Argiren senarra. Larriki zauritu zen ezbeharrean.

Lasarte-Oriako EH Bilduk Askatasunaren parkean egin zuen ekitaldia, ostiral eguerdian. Nabarmendu zuten "dispertsio politika bidegabeak" 31 urte bete dituela. "Horren ondorioz, presoak bisitatzeko, senide eta lagunak denbora luzea igaro behar dute; gastu ekonomikoak, sufrimendua, nekea eta istripuak eragiten ditu horrek". Koalizio abertzaleak ekitaldi horretan azpimarratu zuen giza eskubideak urratzen direla dispertsio politikarekin, eta preso senideenak ere bai.

Jabi Gallaga herritarraren ama Toñi Ruiz kasua ekarri zuten gogora: "89 urterekin, 800 kilometroko ibilbidea egin behar du semea bisitatzera joateko Cordobara, eta beste hainbeste handik bueltan". Egoera hori aintzat hartuta, EH Bilduk hainbat galdera plazaratu zituen: "Nork ezarri dio Toñiri bihurtzeko zigor hori? Nork ezarri zien zigorra Argi eta Iñakiri? Zein nazioarteko zuzenbideren izenean? Non dago salbuespen neurri horiek, egunero preso politiko eta senideen eskubideak urratzen dituen politika horrek, eragindako hamasei biktime horien aitortza?".



EH Bilduk ekimena egin zuen pasa den asteko ostiralean. TXINTXARRI

Herritarrak oroitzearrekin batera, dispertsio politikaren ondorioz, errepidean hildako hamasei senide eta lagunaren memoriaren aitortzaren eskubidea urratzen ari dela ere salatu zuen EH Bilduk ostiralean, dispertsioarekin amaitzeko deia egitearekin batera: "Ehunka zauritu eta hamasei biktimearen erantzule zuzena da, giza eskubideak urratzeko tresna; bertan behera uzteko eskatu du euskal gizarteak, hamaika aldiz". Ibon Fernandez Iradiren kasua ere gogoratu zuten ekitaldi horretan.

Larriki gaixo dagoen hamar presoetako bat dela gogora ekartzearekin batera, arbuia egin zuten Zigorrek Ezartzeko Frantziako Auzitegiak hartutako erabakia. "Esklerosi anizkoitza dauka, eta ezin dio eritasun horri behar bezala aurre egin kartzelan jarraituta". Sarek egun horretan bertan antolatutako mobilizazioetan parte hartu zuen alderdiak.

### Mendi martxa Teresategira

Lasarte-Oriako ezker abertzaleak antolatuta, dozenaka herritar igo ziren Teresategi mendira larunbat goizean. Bertan dago Argi Iturralde eta Iñaki Balerdiaren oroitarria; Tomas Arruti eta Pontxo Moralesen txalaparta doinuak entzun ostean, lore batzuk utzi zituzten bertan.

Menditik jaistean, goizean xahututako indarrak berriro zituzten herritarrek Xirimiri elkartearen, mokadutxo bat janean. Dispertsio politika salatze aldera egin zuen ekitaldia ezker abertzaleak, Argi eta Iñakiren heriotzaren hamazazpigarren urteurrenaren bihamamunearn.



Herritarrak, Teresategin. L-O EZK. AB.

## Aitzol Iriondo Iartzza

Ecru 2836  
Establisement Penitentiare  
B.P. 166  
Rue des Saligues  
65307 Lannemezan (France)



Zorionak Aitzol!



Amaia Mazkianaren lanak iragarriko du datorren urteko Martxoaren 8a. TXINTXARRI



Sei lan aurkeztu dituzte aurten Martxoaren 8a iragartzeko kartel lehiaketara. TXINTXARRI

# Emakumeen Nazioarteko Eguna iragarri eta aldarrikatu

Martxoaren 8a aldarrikatzeko aurten ere ekintza ugari antolatu dituzte eragile ezberdinek. Lasarte-Oriako Udalak kartel lehiaketa eta adin ezberdinentzako ekintzak antolatu ditu. Lasarte-Moriak ere egin du eurek antolatutakoetan parte hatzeko deia

## Txintxarri

Olatu moreak hartu du egunotan Lasarte-Oria. Emakumeen Nazioarteko Eguna begira, hainbat izan dira udalak zenbait elkartekin batera antolatu dituen ekitaldiak. Martxoaren 8an izango da ekintza bat baino gehiago, baina aurretik eta gero ere jarduera ugaritan parte hartzeko aukera izan dute adin guztietako herritarrek; otsaila amaieratik martxoaren erdialdera hain zuzen.

Otsailaren 24an ezagutarazi zituzten aurtengo Martxoaren 8a iragartzeko kartel parte hartzaileak. Guztira sei lan aurkeztu dituzte. Denak dira ezberdinak, baina kolore bat antzeman daiteke guztietan: morea. Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroan jarri

dituzte ikusgai, eta gustukoena bozkatzeko aukera ere izan dute herritarrek. Asteazkenean, berriz, bozka horiek kontutan hartuta, aurtengo lan irabazlea aukeratu dute: Amaia Mazkianaren lanak iragarriko du datorren urteko Martxoaren 8ko egitaraua. 120 euroko diru saria irabazi du. Bigarren saritua Ane Lopez izan da eta 90 euroko saria jaso du. Hirugarrena, berriz, Marta Rojo izan da, eta 60 euro eskuratu ditu.

Asteartean, etxeko txikiaren txanda izan da. Sorgina Txirulina ipuin kontalariak *Teresa printzesa morea*-ren istorioa kontatu die 3 eta 8 urte bitarteko haurrei. Manuel Lekuona kultura etxeko liburutegian bildu dira.

Gaur arratsaldean, 12 eta 15 urte bitarteko gazteek

*Berdintasunerako prest?* ginkanan parte hartzeko aukera izango dute. Arratsaldeko 18:00etan izango da hitzorduan, Gaztelekuuan.

Horren ostean, 19:30ean, helduentzako antzezlan ikusteko aukera izango da kultur etxean. Makelur taldeak *Pase lo que pase... Llegamos* antzerki obra oholtzaratuko du Manuel Lekuonako areto nagusian. 3 euroko sarrera erosi beharko dute bertaratu nahi dutenek.

Eta eguna amaitu aurretik, 21:30ean, afari herrikoia eta dantzaldia izango dute herritarrek. Ekintza horretan parte hartzeko izena ematea ezinbestekoa dela jakinarazi dute antolatzaileek.

Larunbat goizean, kirola apur bat eginez hasiko dute eguna,



Sorgina Txirulinaren kontakizunak adi entzun dituzte haurrek. TXINTXARRI

10:30etik 13:00etara bosgarren zumba maratokia egingo baita. Pertsona, familia, elkarte edota kuadrilla orori zuzenduta dago ekitaldi hori eta Okendo plazan egitea aurreikusi badute ere, eguraldi txarra egingo balu, Loidibarren pilotalekura lekualdatuko dute.

Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, aldarrikapena izango da nagusi. Eguerdian, elkarretaratzea egingo dute Okendo plazan, eta hori amaituta 12:20an Zero Sette akordeoi taldeak *Emakume zuzendarien lanak* kontzertua eskainiko du. Mercero guneko erakusketa aretoan izango da emanaldia.

Datorren astean ere izango dira ekintza bat baino gehiago. Asteazkenean ikastetxeetako

haurrak *Meri, Mari era Lari* antzerkia ikustera joango dira kultur etxera, eta arratsaldean (18:00etan) Biyak Bat zahar egoitzan berdintasun gaiak landuko dituzte solasaldi baten bidez.

Hilaren 14an Zinegoak laburmetraiaren emanaldia egingo dute kultur etxean 19:00etan, eta 15ean, berriz, *Las Cholitas* ikus-entzunezkoa emango dute 19:30ean. Bi horietara joateko sarrerek 5,50 euroko kostua dute.

Oriarte institutuko gazteek ere ekintza bat baino gehiago egingo dituzte. Astelehenean, 10:45ean *Irradaka* emakumeen dantza dantzatuko dute, abesten duten bitartean. Bestalde, ikastetxeko jolas-lekua margotuko dute.





Milaka emakumek parte hartu dute aurtengo Donostiako Lilatoioan. GIPUZKOA SOLIDARIOA KUTXA GIZARTE EKINTZA

# 100 lasarteoriatar Lilatoian lasterka

6000 emakumek baino gehiagok parte hartu du Donostiako Lilatoian. 31. edizioa izan da aurtengoa, eta Lasarte-Oriatik 97 lasterkari helmugaratu dira. Kirolak izan du bere tarte, baina aldarrikapenak izan dira nagusi. Maite Salazar izan da herritar azkarrena

## Txintxarri

Urtero legez, dozenaka lasarteoriatarrek parte hartu dute Lilatoian: 97 iritsi dira Bulebarreko helmugara, bost kilometroko ibilbidea osatu eta gero. Berdintasun aldarriak zabaldu dituzte lau haizetara. Lilatoiak 31 urte bete ditu aurtentzen. Izen-emateak epea itxi aurretik agortu dira: 6.000 emakumek baino gehiagok

eman dute izena. Horietaik 5.576 iritsi dira helmugara. Izaro Rubio Lasa ordiziarra izan da azkarrena, 18.23ko denbora eginda. Lasarte-Oriako 97 emakumek zeharkatu dute Bulebarreko helmuga, bost kilometroko ibilbidea osatu eta gero.

Maite Salazar Badiola izan da helmugara iritsi den lehen lasarteoriatarra. 19.21eko

denbora behar izan du ibilbidea osatzeko. Bere atzetik bigarren herritarra; Izaskun Salazar Badiola. Ahizpak baino lau minutu gehiago behar izan ditu helmugaratzeko; 23.31n geratu du kronometroa. Hirugarrena, aldiz, Elena Arriaran Rodriguez izan da. 27.04ko denbora eginaz.

Kirolaren aitzakia erabiliaz, aldarrikapena izan da nagusi.

## Lasarte-Moriak ere prest dauka Martxoaren 8ko egitaraua

Lasarte-Oriako ekintzez gain, Donostiako manifestazioarekin bat egitera deitu du taldeak

## Txintxarri

Larunbaterako aurreikusitako lehen hitzordua, Mercero gunean. 19:00etan elkartu eta ordubete beranduago egingo duten ekintza prestatuko dute. Horretarako, baserritar jantziaren gona, kamiseta beltza eta begiak beltzez margotzeko materiala eramatea eskatu

dute. Baserritar jantzia ez duenak jantzi beltzak eraman ditzake. Ordubete beranduago, 20:00etan Akelarrea egingo dute Okendo plazan.

Igandean, berriz, Donostiako mugimendu feministak deitutako manifestazioan parte hartzeko deia luzatu dute. 18:00etan abiatuko da

mobilizazioa. Horrela, hitzordu horretara joateko 17:15eko tren hartuko dutela jakinarazi dute.

## Zapi moreak egiteko tailerra

Lasarte-Moriaren ekintzez gain, larunbatean Uistin kaleko Koöl estudioan zapi moreak egiteko tailerra antolatu dute Izan Inurri, Koöl estudioak eta Berexi ilustratzaileak. Goizeko 10:30ean hasiko da ekintza 13:00ak arte, eta horren ostean, emakumeen bermuteoarekin jarraituko dutela iragarri dute. Tailerlean parte hartzea baieztatu egin behar da: [info@koolstudio.es](mailto:info@koolstudio.es) helbidera.

## TTAKUNEN UDALEKUAK 2020

Plazak mugatuak

LH: EGONALDIAK ATERPETXEAN

### ATXONDO

Lekunetxe, Bizkaia

LH3 LH4 Uztailaren 16tik 23ra

TTAKUNEN  
BAZKIDEAK  
167€

BAZKIDE  
EZ DIRENAK  
180€

### + Udako Txokoak

Udako Txokoak (1etik 15era) + Atxondo  
+ Udako Txokoak (24tik 30era).

BAZKIDE  
EZ DIRENAK

260€ 10.00etatik  
280€ 9.00etatik

### Aukerak ere Hamabostaldia:

### DONEMILIAGA

(Errotazarra, Araba)

LH5-LH6 Uztailaren 3tik 14ra

TTAKUNEN  
BAZKIDEAK  
236€

BAZKIDE  
EZ DIRENAK  
255€

### + Udako Txokoak

Udako Txokoak (uztailak 1 eta 2) + Donemiliaga +  
Udako Txokoak (15etik 30era).

BAZKIDE  
EZ DIRENAK

325€ 10.00etatik  
340€ 9.00etatik

### Ttakuneko bazkideentzat prezio berezia

JANGELA  
ZERBITZUA

50€ BAZKIDEAK  
55€ EZ BAZKIDEAK

Ttakuneko bazkideentzat, iaiz ibilitakoentzat eta Gazte klubeko gaztetxoentzat:  
martxoaren 16an eta 17an.

16an, online egiteko aukera 9:30etik 16:30era. Linka: [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)-en  
17an, bulegoan bertan egiteko aukera. 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara  
Lehenengo bi egunetan plaza kopuru totalaren erdiak online eskainiko dira,  
eta beste erdia bulegoko izen-emate bidez.

Gainerakoentzat: martxoaren 18tik maiatzaren 8 arte.





Trinko triatloi elkarteko hainbat kidek Epic Landus Swimrun Race jokatu zuten 2019ko urrian. TRINKO LASARTE-ORIAKO TRIATLOI TALDEA

## Hiru diziplina, hamaika bizipen

Duatloi eta triatloi denboraldi berriari ekin dio Trinkok; taldera batzeko deia egin diete lasarteoriarrei. Kirol material berria estreinatuko dute aurtengo probetan

### Iñigo Gonzalez Sarobe

Igeri egin; bizikleta gainean pedalei eragin; eta, gero, zapatilak jantzi eta korrika egin. Triatloiak hiru diziplina horiek uztartzen ditu. Gogorra da eta entrenamendua eskatzen du, jakina, baina kirol horretaz gozatzeko ez da derrigorrez eliteko kirolaria izan behar; ez dira ironmanak egin behar astebururo. Distantzia ugari

daude, hamaika proba eta aukera. Trinko Lasarte-Oriako Triatloi Taldeak herritarrak animatzen ditu eurekin entrenatzen hastera: asteen zehar korrika eta igerian aritzen dira nagusiki, eta zenbait asteburutan bizikleta irteerak egiten dituzte. Facebook eta Twitter sare sozialetan presente daude, eta helbide elektronikoa badute: [lasartetriatloi@gmail.com](mailto:lasartetriatloi@gmail.com).

com. 695 74 33 00 telefono zenbakira ere dei dezakete interesatuek.

Euskal Herriko zirkuituko probak jokatzeko dituzte Trinkoko kideek: duatloiak eta triatloiak. Lehiatzeko material eta jantzi berriak erabiliko dituzte aurtentzat. Martxoan badituzte zita batzuk: Eibar, Arbizu, Oñati...eta askoz gehiago hurrengo hilabeteetan. Distantzia luzeagoko probak dira batzuk, baina egiten dituzte motzagoak ere, sprint distantziakoak. Oharra triatloiak egiten hasi nahi dutenentzat: proba herrikoiak joka ditzakete federatuak ez daudenek. Zumaian edo Hondarribian, adibidez. "Prest gaude taldekide berriei proba horietan laguntzeko, eta, behar balute, materiala uzteko", adierazi dute Trinkoko kideek. Saiatzen ari dira emakumeen presentzia areagotzen taldean. "Gure beste erronketako bat da".

## Ohorezko Erregional taldeak 3-0 irabazi dio Goierri Gorriari

Ostadar SKTk garaipen garrantzitsua lortu du asteburuan, Erregionalen Ohorezko Mailako azken postuetatik are gehiago aldentuz. Urdin-beltzek Goierri Gorriarekin neurtu zituzten indarrak Michelinek. Bigarren zatian apurtu zuen neurraketa

etxeko taldeak, arratsaldeko hiru golak sartuta: Miren Garro, Mireia Gonzalez eta Nora Landabereak zulatu zuten arerioen atea.

Erregional Preferenteak hatzamiekin ukitu zuen garaipena, baina luzapenean ihes egin zion: bina berdindu zuen Dunboa Eguzkiren aurka. Bolada txarra haustea lortu du gutxienez; aurreko bi partidak galdu zituen.



LASARTE-ORIA TRAIL

## Lasarte-Oria Trail, Zumarragan

UZTrail mendi lasterketa gogorren parte hartu dute Lasarte-Oria Trail taldeko hainbat kidek asteburuan. 23,5 kilometroko ibilbidea egin dute, 1.600 metroko desnibel positibo metatuarekin. Sergio Ramirez izan da herritar azkarrena: bi ordu eta 30 minutuko denbora egin du. Gainontzeko markak: R. Marcos 2.32; J. R. Mendizabal 2.44; J. Olazagoitia 2.47; A. Mendizabal 2.58; J. L. de la Mata 2.59; A. Eleno 2.59; A. Blanco 3.51; eta M. Granado 3.51. Javier Blazquezek 12 kilometroko lasterketa egin zuen, 1.34ko denborarekin.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

#### OHOREZKO ERREGIONALA

##### Zumaia FT - Ostadar SKT

Larunbata. 15:30. Aita Mari, Zumaian.

#### ERREGIONALEN GORENGOA

##### Axular KKE - Ostadar SKT

Larunbata. 15:30. Puio, Donostian.

#### JUBENILEN 1. MAILA, IGOERA

##### Usurbil FT - Ostadar SKT A

Larunbata. 16:00. Harane, Usurbilen.

#### JUBENILEN 1. MAILA, KOPA

##### Euskalduna SD - Ostadar SKT B

Larunbata. 19:00. Ubitarte, Andoainen.

#### KADETEEN OHOREZKO MAILA

##### Billabona KE - Ostadar SKT

Larunbata. 11:45. Arratzain, Villabonan.

#### KADETEEN 1. MAILA, KOPA

##### Ostadar SKT A - Intxurre KKE

Larunbata. 17:00. Michelin kirol gunean.

##### Danena KE - Ostadar SKT B

Larunbata. 16:00. Elbarrena, Zizurkilen.

#### INFANTILEN 1. MAILA, TXAP.

##### Lazkao KE - Texas Lasartearra

Zehazteke.

#### INFANTILEN 1. MAILA, KOPA

##### Ostadar SKT A - Hernani CD

Larunbata. 12:30. Michelin kirol gunean.

##### Martutene KE - Ostadar SKT B

Igandea. 12:00. Martutene, Martutenen.

#### ARETO FUTBOLA

##### SENIOR 1. MAILA

##### Euskalduna SD - Eguzki Aldaz H.K.

Larunbata. 17:45. Allurralde kir., Andoainen.

##### Idiazabal - Eguzki Garoa Taberna

Larunbata. 16:00. Zelaa kir., Idiazabalen.

##### SENIOR 2. MAILA

##### Eguzki ISU Leioak - Donibane Stokke

Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kiroldegian.

#### JUBENILAK

##### Eguzki 2KN - Eguzki Balerdi Harategia

Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kir.

#### HERRIKO TXAPELKETA

##### Bar Goiko - Avenida Taberna

Igandea. 09:00. Michelin kirol gunean.

##### Viña del Mar - Trumoi Taberna

Igandea. 10:00. Michelin kirol gunean.

##### Bar Buenetxea - Garoa Taberna

Igandea. 11:00. Michelin kirol gunean.

##### Asador Irigoien - Patricio Cocktail Bar

Igandea. 12:00. Michelin kirol gunean.

### SASKIBALOA

#### SENIOR PROBINTZIALA, 1. MAILA

##### Eme Oiarso SKT - Ostadar SKT

Larunbata. 20:00. Don Bosco, Errenterian.

#### JUNIOR ERRENDIMENDUA

##### Ostadar SKT - Askatuak

Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kiroldegian.

#### JUNIOR PARTAIDETZA

##### Ostadar SKT - Ibaeta Bera Bera

Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kiroldegian.

#### KADETEEN EUSKAL LIGA

##### Goierri Oxykor - Ostadar SKT

Larunbata. 17:45. Aldiri kir., Urretxun.

#### KADETE PARTAIDETZA

##### Ostadar SKT - Antigua Luberrri KE

Larunbata. 11:15. Maialen Chourraut kiroldegian.

#### INFANTIL HANDI PARTAIDETZA

##### Ostadar SKT - Goierri Meaka

Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kiroldegian.

#### INFANTIL TXIKI PARTAIDETZA

##### Antigua Luberrri KE - Ostadar SKT

Larunbata. 10:30. Antigua Luberrri, Donostian.

### GIMNASTIKA

#### UDABERRIKO TXAPELKETA

##### LOKEko gimnasta alebin, infantil eta kadeteek Udaberriko Txapelketaren

1. fasea jokatu dute estilo librean, pilotekin eta mazekin.

Igandea. Goizean zehar. Karmelo Balda pilotalekua, Donostian.

#### JUDO

##### INFANTILAK, GIPUZKOAKO TXAP.

##### LOKEko sei judoka infanteleko Gipuzkoako Txapelketa jokatu dute.

Larunbata. Goizean zehar. Zarautzen.

##### KADETEAK, GIPUZKOAKO TXAP.

##### LOKEko sei judoka kadetek Gipuzkoako Txapelketa jokatu dute.

Larunbata. Arratsaldean zehar. Zarautzen.

#### ERRUGBIA

##### OHOREZKO B MAILA

##### Urbealde RKE - Babyauto Zarautz

Larunbata. 16:00. Atxurizubi, Mungian.

#### SENIORREN EUSKAL LIGA

##### UBR Menditarrak - Babyauto ZRT Beltzak

Larunbata. 16:00. Fadura, Lekarozen.

#### 18 URTEZ AZPIKOAK

##### Babyauto ZRT Beltzak - Getxo RT

Igandea. 11:00. Asti, Zarautzen.

#### 16 URTEZ AZPIKOAK

##### Mutriku/ZRT/Beltzak - Iruña RC

Larunbata. 14:15. San Miguel, Mutriku.

#### 14 URTEZ AZPIKOAK

##### La Unica RT - Babyauto ZRT Beltzak

Igandea. 11:00. UPNA, Iruñean.

#### IPAR MARTXA

##### 'PILATWALK' SAIOA

##### Ostadar Ipar Martxako kideek antolatuta, 'Pilatwalk' modalitateko saio bat egingo dute, Eva Espuelas irakaslearekin batera.

Larunbata. 10:00etatik 12:00etara. Eguraldi berragatik, Oriarte Landaberri eraikineko patioan egingo dute saioa.

#### LASTERKETAK

##### XVII. ANGERU GOARDA IGOERA

Herritar batzuek XVII. Angeru Goarda Igoera lasterketa jokatu dute. 6,1 kilometroko da ibilbidea.

Larunbata. 17:00. Donostian.

#### IGERIKETA

##### EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

Buruntzaldea IKTKo igerilari junior eta absolutuek Euskal Herriko Neguko Txapelketa jokatu dute martxoaren

15ean eta 16an.

Asteburuan zehar. Amaya kirolgunea, Iruñean.

# Sagastik, zilarrezko postua Superkopian

LOKEko judokak bigarren postua eskuratu du Ciutat de Barcelona Nazioarteko Txapelketan. Larunbatean, infantil eta kadete mailako seina judoek Gipuzkoako Txapelketa jokatu dute. Euskadiko Txapelketarako sailkatzeko aukerak dituzte

## Txintxarri

Ciutat de Barcelona Nazioarteko Txapelketa jokatu zen otsailaren 29an. Lehiaketa absolutu mailako Espainiako Superkopa A jardunaldia ere bazen eta estatuko zein nazioarteko judokak bildu ziren nor baino nor borrokatzera. LOKEko Asier Sagasti eta Haritz Urdangarin ere Bartzelonara egin zuten bidaia eta Sagastik saria ekarri zuen esku artean, zilarrezko domina.

Sagasti 100 kilo azpiko mailan lehiatu zen. Bi judoka katalan garaitu behar izan zituen finalera iristeko. Azken borrokan, ordea, Gasteizen bizi den Gocha Kurdiani georgiarra izan zuen aurrez aurre eta ezin izan zuen mendeen hartu.

Haritz Urdangarinak ez zuen zortetik izan eta lehen borrokan frantses baten aurka galdu zuen eta ez zuen bigarren aukeran parte hartzeko aukerarik izan.

## Sei sailkatu

Gorka Aristegi entrenatzailea pozarren agertu da Sagastiren lanarekin, baita infantil mailako judoek lortutakoarekin ere.

Larunbat goizean Zarautzen jokatu den Gipuzkoako txapelketarako sailkapena zuten jokoan taldeko gazteek eta seik



Asier Sagasti, ezkerreko lehena, Superkopako podiumean. G. ARISTEGI

aurrera egitea lortu zuten: Tania Curiel, Naiara Sagasti, Iker Izquierdo, Unai Guisado, Aitor Santos eta Julen Ugartek.

Urtarrilean jokatu zen sailkapeneko lehen jardunaldian emaitza onak izan zituzten LOKEko judoek; bigarren jardunaldian ere ez dira atzean geratu eta lehen postuetan izan dira.

Infantilen mailako txapelketa gogorra aurreikusten du LOKEko prestatzaile Aristegik, baina bere ustez, Julen Ugartek eta Unai Guisadok finalera iritsi

eta Euskadiko txapelketako sailkapena eskuratzeko aukerak dituzte.

Kadete mailan ere Euskadiko Txapelketako txartel ugari eskuratu ahalko dituztela azpimarratu du. Maila honetako txapelketa ere larunbatean jokatu da, arratsaldean.

Almi Campos, Lucas Morales, Mario Herrero, Martin Sebastian, Oier Guisado eta Borja Dominguez izango dira LOKEko ordezkariak. "Guztiekin finalean egoteko aukerak dituzte", aipatu du Aristegik.



Malen Urkiri, eskuineko lehena, Espainiako Ligako jardunaldian. OSTADAR INKLUSIOA

## Malen Urkiri, maila handiko boccia kirolarien aurka

Ane Asensio Ostadar SKTko atleta 200 m. eta 400 m. lasterketetako Espainiako errekorrena da

## Txintxarri

Ostadar Inklusioa taldeko Malen Urkiri Bocciako BC4 mailako Liga nazionalako lehen jardunaldian lehiatu zen Olvegan, Sorian. 13 urteko zarautzarrak Iker Urkiri izan zuen laguntzaile.

Lehen urtea da maila horretako lehiaketa martxan jartzen dela. Hala ere, maila handiko kirolariek parte hartu zuten eta Ostadar inklusio taldeko gazteak bakarkako eta bikotekako txapelketan aurre egin behar izan ziren. Bikotekakoan Haszten elkarteko Unai de Miguelekin batera lehiatu zen.

Lehiaketa sistemari dagokionez, bi jardunaldietan zehar liga jokatu dute. Malenek lehen saio honetan sei partida jokatu zituen bakarka eta hiru binakako txapelketan.

Bigarren eta azken jardunaldia maiatzaren 2an eta 3an izango da, Olvegan bertan.

Bestalde, Ostadar Inklusioa taldeko atletismo ataleko kideak pozarren daude, Ane Asensio Espainiako errekorrena baita 200m. eta 400 m. lasterketan.

## Espainiako errekorrak

Otsailaren 27an Espainiako Atletismo Federazioak errekorren markak eguneratu eta argitara eman zituen. Ezusteko polita eraman zuten Ostadar Inklusio taldeko kideek 200 m. eta 400 m. probako T34 mailan, Ane Asensio 2019. urtean lortutako bi marka ikustean.

200 m. lasterketako marka 2019ko ekainaren 9an Basaurin egin zen atletismoko nazioarteko topaketa batean lortu zuen, 01.23,01.

400 m. probakoa, berriz, 2019ko martxoaren 23an egin zuen Liberty Seguros Espainiako Txapelketan, Collado Villalba, Madrilan. Marka 3.33,64 da.

## Ostadar Boleibolak bosgarren postuan amaitu du liga

Arantzazuko Ama taldearen aurka 3-0 galdu du talde urdin-beltzak azken jardunaldiko partida

## Txintxarri

Ostadar Boleiboleko taldeak ezin izan du garaipenaren bidean jarraitu. Bi jardunaldietan jarraian puntuak eskuratu ostean, Arantzazuko Ama taldeak 3-0 garaitu zuen igandean Asier

Acuriolaren taldea, Maialen Chourraut kiroldegian.

Bi garaipenek bultzatuta, talde urdin beltzeko kideak gogotsu atera ziren jokatzera. Lehen seta borrokatua izan zen eta hiru punturengatik bakarrik lortu

zuen Arantzazuko Ama taldeak garaipena, 25-22. Nahiz eta lasarteoriarrak saiatu, beste bi jokoetan ere donostiarrak gailendu ziren, 25-20 eta 25-16.

Jokatutako jardunaldia Gipuzkoako txapelketa liga faseko azken partida izan zen. Asier Acuriolak zuzentzen duen taldeak bosgarren postuan amaitu du fase hori. Hurrengo astean, Gipuzkoako txapelketako azken fasean sartuko dira. Sailkapeneko laugarren eta seigarren taldeen aurka jokatu beharko du.



Ostadar Boleibola taldeak Arantzazuko Ama taldearen aurka jokatu zuen. TXINTXARRI

# Naroa Furundarena Espainiako zazpigarren

Ostadar SKTko gaztea absolutu mailako Espainiako Txapelketan bikain aritu da. Zortzi onenen artean sailkatu da jauzi hirukoitzeko finalean parte hartzeko eta bere marka ondu du. Gazte mailako atletak ere ederki lehiatu dira Euskal Herriko Txapelketan

## Txintxarri

Ostadar SKTko atletismo saila pozarren dago. Naroa Furundarena atleta Espainiako onenen artean lehiatu da jauzi hirukoitzean proban eta ongi erantzun dio erronkari.

Furundarena eta Ostadar SKTko prestatzaile Amaia Andres eta Oscar Goikoetxea Ourenserako bidaia egin zuten. Otsailaren 29an, Furundarenak hitzordu garrantzitsua zuen absolutu mailako Espainiako txapelketako proba. Peleteiro, Serrapio, Lobato... jauzi hirukoitzeko Espainiako atleta onenen aurka lehiatu zen gaztea lehenengoz, eta ongi egin zion aurre lehiaketari. Zortziko finalera sailkatu eta zazpigarren amaitu zuen proba.

Pista estaliko denboraldi hasieratik jauzi hirukoitzean garapen handia egin du Furundarenak eta txapelketan ere ez zuen huts egin. 12 metroak gainditu zituen urtarrilean, otsaila hasierako Gipuzkoako txapelketan 23 zentimetro gehitu zizkion markari eta Espainiako txapelketako finalean 12,58 metroko jauzia egin zuen gazteak.

Furundarenaz gain, Atletico San Sebastian taldeko Eneritz Busto herritarra ere izan zen Ourense. 60 m. hesi proban



Naroa Furundarena eta Ostadar SKTko prestatzaileak, Ourense. OSTADAR SKT ATLETISMO

parte hartu zuen eta finalerdietara iritsi zen gaztea.

## Atleta gazteak ere, finalean

Donostian ere berri pozgarriak izan ziren gazteen mailako Euskadiko txapelketan. Ostadar SKTko zortzi atletek parte hartu zuten. Hainbat finalean lehiatu ziren eta bi domina ere lortu zituzten, zilarrezkoa eta brontzezkoa.

Jauzi probetan lortu ziren bi garaikurrak. Enara Gonzalezek 20 urtez azpiko luzera jauzian zilarrezko domina eskuratu zuen 5,06 m. jauziarekin. Eta 16 urtez azpiko mailan, Naroa Elvira

jauzi hirukoitzeko podiumeko hirugarren mailan egon zen, 9,67 m. Lasterka ere egin zuen Elvirak, 300 m. proban, eta seigarren amaitu zuen.

Irati Valdivia, berriz, 60 m. lasterketako bosgarren eta 60 m. hesi probako zazpigarren izan zen.

200 m. lasterketako seigarren postuan amaitu zuen Maider Abetek, 20 urtez azpiko mailan.

Jokin Rodriguez eta Haritz Grijalbo ere 16 urtez azpiko jauzi hirukoitzeko proban lehiatu ziren, zazpigarren eta zortzigarren izan ziren gazteak, hurrenez hurren.



Ostadar Ipar Martxako kideak Ametzagaña parkean. OSTADAR IPAR MARTXA

## Ipar martxako kideak, Donostian eta bere inguruetan barrena

Ikastaroa, ibilaldiak... martxoaren ekimenez beteta dator Ostadar SKTko Ipar martxako taldearentzat

## Txintxarr

Ametzagaña eta Kristinaenea parkean barrena ibili ziren martxoaren 1ean Ostadar SKTko Ipar martxako kideak. Otsaileko hitzordua eguraldiatik egunez aldatu behar izan zuten, larunbatetik igandera. Hori dela eta, ezin izan ziren kide asko hurbildu. Intxaurrondotik hasi eta Donostiako bi parkeak igaro zituzten Easo plazaraino.

Ez da hau azken hilabetearen egin duten irteera bakarra izan. Club Vasco de Camping elkarteak Ipar martxa atalak hilabeteko laugarren ostegunean antolatzen duen ibilaldiarekin bat egin zuen taldeak otsailean.

Igeldoko kanpinetik Usurbilera joan ziren, Bordatxo-Arratzain igota. Esperientzia berria atsegin egin zitzaizen Lasarte-Oriako taldeko kideei eta aurrerantzean horietan parte hartzeko asmoa agertu dute.

Hurrengo martxoaren 26an izango da, oraindik zehaztu gabeko ibilbidearekin.

## Batetik bestera

Martxoaren ekimenez beteta datorrela azaldu digu Ostadar Ipar Martxako Rosa Ormazabalek.

Larunbat honetan, hilak 7, goizean, pilotwalk ikastaroko bigarren saioa izango dute Eva Espuelasen eskutik.

Aurten ere Otsagabiara egingo dute irteera. Martxoaren 14an eta 15ean egingo dute bidaia. Hiru ibilaldi antolatu dituzte. Larunbatean elurra eginez gero, erraketekin Ipar martxa egingo dute; egon ezean, bertako taldeak lagunduta, Abodira ibilaldia. Igandean, berriz, mailaren arabera bi irteera izango dituzte. Martxoari amaiera emateko, 28an, Uliatik barrena Pasaia San Pedrorra egingo dute bidea.

## Ostadar eta Luberriren arteko partida gogorra

Partida eta lidergotza galdu zuen talde urdin-beltzak; lauko finalerako sailkapena da orain helburua

## Txintxarri

Lehen maila probintzialeko bi lehen sailkatuen arteko norgehiagoka polita ikusi ahal izan zen, larunbatean, Maialen Chourraut kiroldegian. Ostadar SKT eta Luberrri aurrez aurre

izan ziren eta Donostiako taldea gailendu zen, 50-54.

Lehen zatia ongi joan zen Ostadarrentzat, 17-11. Bigarren laurdenean, ordea, Luberririk 3-2 defentsa itxia ezarri zuen. Talde urdin-beltza ez zen ongi moldatu

eta asko kostatzen zitzaion erasotzea.

Hirugarren laurdeneko amaierak eta azken laurdeneko lehen minutuek Luberriren aldeko jarri zuten partida. Donostiarrak kanpo jaurtiketetan fin ibili ziren eta Ostadarrek ez zuen zentzuz jokatu. Ondorioz, 2-14ko partzial gogorra jaso zuen.

Azken minutuetan Ostadarrek arriskua hartu zuen eta markagailuan gerturatzea lortu zuen, hamar tanto jarraian eginda. Emaitzari buelta ematen



Partida gogorra izan zen. TXINTXARRI

ahalegindu ziren, baina ezin izan zuten.

Partidaren ostean, sailkapeneko lehen postua eskuratzea zail izango dela uste du Ander Otaegi entrenatzaileak. "Final Four-atik borrokatzea tokatzen zaigu orain". Eta larunbatean, sailkapena lortzeko partida erabakiorra izango dute Oiarsoaren aurka. Joaneko partida parekatua izan zen eta bost puntugatik irabaztea lortu zuen Ostadarrek, baina talde urdin-beltzeko kideak ez dira fio.

## ZORION AGURRAK



**Nikole**  
Kuku! Martxoaren 12an urte bat beteko dut eta eskerrak eman nahi dizkiet aiton-amonei ni hain ondo zaintzeagatik!



**Oier**  
Zorionak, guapo!!!! Ondo pasa zure hamaikagarren urtebetetzean! Besarkada haundi bat Eñaut, aiton-amona eta familia guztiaren partetik, bihotzez.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

### Internet

*Txintxarri.eus*-en [txintxarri.eus/zorionagurrak](http://txintxarri.eus/zorionagurrak) eta Bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

### elektronikoa

Mezua bidali [txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

### Posta

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## JAIOTAKOAK

**Libe Azcona Robles.** Martxoaren 2an.  
**Malen Castro Sarasola.** Martxoaren 1ean.  
**Cristian Martin Bergese Berrios.** Otsailaren 23an.

## HILDAKOAK

**Sabina Garcia Gozalo.** Otsailaren 29an.  
**Esperanza Segura Pozo.** Otsailaren 27an.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

<b>Ostirala, 06</b>	URBISTONDO	<b>EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00</b>
<b>Larunbata, 07</b>	URBISTONDO	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
<b>Igandea, 09</b>	URBISTONDO	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
<b>Astelehena, 09</b>	GANDARIAS-URIBE	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
<b>Asteartea, 10</b>	DE ORUE	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
<b>Asteazkena, 11</b>	DE MIGUEL	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
<b>Osteguna, 12</b>	LASA	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**  
Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani/ 943 55 77 38

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**  
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera ([www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com)).

## OHARRAK

### Maskaradetara autobusa

Ttakun kultur elkarteak autobusa antolatuta du, martxoaren 14an, Altzürüküko gazteek Maulen egingo duten Maskarada ikusteko. Autobusa goizeko 8:30ean aterako da Lasarte-Oriarik eta 18:30ak aldera izango da hitzordua Maulen herrira bueltatzeko.

Autobuseko txartelak salgai daude Jalgi tabernan eta Ttakun kultur elkartearen. Bazkideek 12 euro ordaindu behar dituzte eta bazkide ez direnek, berriz, 15 euro. Martxoaren 9ra arte egongo dira tiketak eskuragarri.

### Posta bidezko botoa

Apirilaren 5eko Eusko Legebiltzarreko hauteskondeetarako postaz emateko asmoa duten herritarrek, martxoaren 26ra arte dute eskaera egiteko. Eskaera edozein Posta bulegotan egin ahalko da.

Posta zerbitzuak aditzera eman duenez, eskari hau hautesle bakoitzak egin behar du. Eskabidea egiteko unean, interesdunek beren nortasuna egiaztatu behar dute.

Tramite horiek errezteko alderdi politikoek haien laguntza eskaintzen diete herritarrei. PSE-EEko egoitzara (Ganbo 1) astelehenetik ostiralera goizez 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 17:00etatik 20:00etara hurbildu daitezke herritarrek edo 943 372 869 zenbakira deitu dezakete.


### 'Oporrak bakean', familia bila

Lasarte-Oriako Udalak *Oporrak Bakean* proiektu solidarioan parte hartzeko deia egin du. Zortzi familia behar dira, udan oporrak pasatzera Lasarte-Oriara etortzen diren zortzi eta hamabi urte bitarteko haur sahararrak hartzeko.


Interesatuak gizarte zerbitzuekin jarri behar dute harremanetan. 650 488 108 telefonora deitu dezakete, edo, bestela, [gizartez@lasarte-oria.org](mailto:gizartez@lasarte-oria.org) helbide elektronikora idatzi.

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN


### Ostirala, 06




### Larunbata, 07




### Igandea, 08




### Astelehena, 09




### Asteartea, 10



### Asteazkena, 11



### Osteguna, 12



## TELEFONOAK

### UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTTERI AEK: 607 625 233

### LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINZA: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

## SUDOKUA

2			3		7			
4		3		8			6	7
		9			1		2	3
1	9	2		7			4	8
5	6	7			4		1	2
		4		2		7		
	4		9		6	2	7	
	7			3		8		
9			7		8			4



**ESKELAK JARTZEKO**

**TEL: 943 37 14 48**  
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**  
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

**Txintxarri: doan eta euskaraz**  
**Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48**

## AZOKA TXIKIA

**ETXEBIZITZA**  
**ERRENTAN EMAN**  
Partekatutako etxebizitza batean logela alokatzen da. Neska langile eta jator baten bila gabiltza. Etxea Lasarte-Oria erdialdean dago. Informazio gehiago jasotzeko deitu 666320520ra. Nekane

Udarako hilabeteetarako etxea alokatzen da, Punta Umbrian, Huelvan. Bi igerileku eta padel pista ditu. Garajea barne. Harremanetarako zenbakia, 943 376 115.

Urbarte auzoan bi garaje marra alokatzen ditut. Harremanetarako zenbakia, 943 376 115.

**LANA**  
**ESKARIA**  
Langabetua naiz, eta prest nago garbiketa lanak egiteko etxeetan, edo haurrak zein adineko pertsonak zaintzeko, interna edo externa moduan. Harremanetarako zenbakia, 604 34 18 93.

Pertsona eskaintzen da helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka edo gauean lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia, 634 278 198.

**SALEROSKETAK**  
**SALDU**  
Gurpildun aulki bat saltzen dugu: berri-berria dago. Prezioa, 100 euro. Harremanetarako zenbakia, 609 55 63 38.

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, erosoa eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 400 euro. 646 824 466.




## NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira

**TAMAINA BERRIA**  
Modulo txikia.  
12 €  
(BEZ barne)  
publizitatea@ttakun.eus

**TAMAINA BERRIA**  
Modulo handia. 20 € (BEZ barne)  
publizitatea@ttakun.eus  
646.824466

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

**txintxarri**

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

**Argitaratzailea**  
Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

**Administraria**  
Nerea Garziarena.

**Erredakzioa**  
Nerea Eizagirre, Inigo Gonzalez,  
Maddi Zaldúa eta  
Maitane Aldanondo.

**Publizitatea**  
Irati Zatarain.

**Laguntzaileak**  
Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maider Galardi, Mikel Yarza,  
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta  
Aizpea Amas.

**Banatzaileak**  
Ioar Gainza, Egoitz Epelde,  
Erlantz Ezeiza, Inigo Garcia eta  
Jose Lanchas.

**Informatika zerbitzuak**  
IZT Informatika.

**PUBLIZITATEA**  
Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
publizitatea@ttakun.eus

**EGOITZA NAGUSIA**  
Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@txintxarri.eus

**Inprimategia**  
Zeroa Multimedia, S.A.

**Lege Gordailua:** SS-513/94  
**ISSN:** 1134-0053  
**Tirada:** 8.000 ale

BABESLEA



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 6

### LASARTE-ORIA Erakusketa

Zorione Mendez, *Marrak*-en erakusketa ikusgai izango da martxoaren 31ra arte. Aurpegi eta gorputzen grabatu eta marrazkiez osatuta dago erakusketa. Marrak dira nagusi irudietan. Jalgi, egun osoan zehar.

### LASARTE-ORIA Ginkana

*Berdintasunerako prest?* ginkana parte hartuko ahalko dute 12 eta 15 urte arteko gazteek. Emakumeen Nazioarteko Egunaren egitarauko ekitaldia. Gaztelekua, 18:00etan.

### LASARTE-ORIA Antzerkia

*Pase lo que pase... Ilegamos* antzerkia eskainiko du Makelur taldeak. Sarrera, 3 euro. Emakumeen Nazioarteko Egunaren egitarauko ekitaldia. Manuel Lekuona 19:30ean.

### LASARTE-ORIA Afaria

Afari herrikoia egingo da Emakumeen Nazioarteko Eguneko egitarauaren barruan. Abend jatetxea, 21:30ean.

### USURBIL Erakusketa

Santueneko Zahar Egoitzan Maria Jesus Etxeberria argazkilariaren erakusketa ikusgai egongo da. Martxoaren 30era ikusgai. Santueneko Zahar Egoitza, 10:00etatik 22:00etara.

## LARUNBATA 7

### LASARTE-ORIA Zunba maratoia

Adin guztietako pertsonen zuzendutako V. Zunba maratoia egingo da. Emakumeen Nazioarteko Egunaren egitarauko ekitaldia. Okendo plaza, 10:30etik 13:00etara.

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Teatro Paraisok *Gizon zoriontsuaren alkandora* antzerkia eskainiko du. Etxeko txikiei zuzendutako ikuskizuna da. Erabilera berriak eman zaizkien eguneroko bizitzako objektuak, eta modurik modernoenean editatu, tratatu eta erreproduzitutako irudien proiektzioak nahastuko dituzte antzerkiarekin Tolsto idazlearen ipuina taularatzeko. Sarrera, 3,80 euro. Manuel Lekuona, 17:00etan.



**LASARTE-ORIA Antzerkia. Opera digitala.** Benjamin Britten musikariren *Billy Budd* operaz gozatuko dute opera zaletuek, Opera digitala atalean. Vere kapitain erretiratuak *Indomito* itsasontzian Frantziaren aurkako gudan jazotakoa gogoratzen du. Hainbat gertaera direla era, Vere kapitainak Billy Budd marinela heriotzara zigortzen du. Jatorrizko hizkuntzan eskainiko da gaztelaniazko azpidatizkiekin. Sarrera aurretik, 7,5 euro: egunean, 9 euro. Manuel Lekuona, asteazkena, 19:00etan.

## IGANDEA 8

### LASARTE-ORIA Elkarretaratzea

Emakumeen Nazioarteko Egunean elkarretaratzea egingo da. Okendo plaza, 12:00etan

### LASARTE-ORIA Kontzertua

Emakume zuzendarien lanetan oinarritutako kontzertua eskainiko du Zero Sette akordeoi orkestrak. Emakumeen Nazioarteko Egunaren egitarauko ekitaldia. Antonio Mercero gunea, 12:20ean.

## ASTELEHENA 9

### LASARTE-ORIA Ardo dastatzea

Rioja Vega upeltegiko ardoak dastatuko dira. Tabernan bertan egingo da izena ematea. 7 euro ordaindu behar dira. Plaza mugatuak dira. Buenetxea kafetegia, 19:00etatik 21:00etara.

## ASTEARTEA 10

### LASARTE-ORIA Ardo dastatzea

Ramón Bilbao upeltegiko ardoak dastatuko dira. Tabernan bertan egingo da izena ematea. 7 euro ordaindu behar dira. Plaza mugatuak dira. Eguzki taberna, 19:00etatik 21:00etara.

## ASTEAZKENA 11

### LASARTE-ORIA Antzerkia

*Meri, Mari eta Lari* antzerkiak goxatu ahalko dute Lasarte-Oriako ikastetxeetako haurrek. Emakumeen Nazioarteko Egunaren egitarauko ekitaldia. Manuel Lekuona, 10:30ean.

### LASARTE-ORIA Bideoforuma

Berdintasuna lantzeko bideoforuma egingo dute adineko pertsonekin. Emakumeen Nazioarteko Egunaren egitarauko ekitaldia. Biyak Bat elkarte, 18:00etan.

### LASARTE-ORIA Ardo dastatzea

Ardo zurien dastatzea egingo da. Tabernan bertan egingo da izena ematea. 7 euro ordaindu behar dira. Plaza mugatuak dira. Zubieta taberna, 19:00etatik 21:00etara.

## OSTEGUNA 12

### LASARTE-ORIA Ardo dastatzea

Bodegas Riojanas upeltegiko ardoak dastatuko dira. Tabernan bertan egingo da izena ematea. 7 euro ordaindu behar dira. Plaza mugatuak dira. Viña del Mar kafetegia, 19:00etatik 21:00etara.

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

**Jumanji: Siguiente nivel**  
Igandea: 17:00.

**Mujercitas**  
Igandea: 19:30.

#### ANDOAIN

#### BASTERO

**Las aventuras del Doctor Dolittle**  
Larunbata: 17:00.  
Igandea: 17:00.

**El escándalo**  
Larunbata: 19:30, 22:00.  
Igandea: 19:30.  
Astelehena: 19:30, 22:00.

#### USURBIL

#### URBIL

**Onward**  
Ostirala: 15:45,

17:00, 18:00, 19:20, 20:20, 21:40, 00:00.  
Larunbata: 15:45, 17:00, 18:00, 19:20, 20:20, 21:40, 00:00.  
Igandea: 15:45, 17:00, 18:00, 19:20, 20:20, 21:40.

**Bloodshot**  
Ostirala: 16:00, 18:00, 20:05, 22:35, 00:55.  
Larunbata: 16:00, 18:00, 20:05, 22:35, 00:55.  
Igandea: 16:00, 18:00, 20:05, 22:35.

**El hombre invisible**  
Ostirala: 16:15, 18:50, 21:25, 00:10.  
Larunbata: 16:15, 18:50, 21:25, 00:10.

Igandea: 16:15, 18:50, 21:25.

**Parásitos**  
Ostirala: 18:25, 21:15, 00:50.  
Larunbata: 18:25, 21:15, 00:50.  
Igandea: 18:25, 21:15.

**The Gentlemen: Los señores de la mafia**  
Ostirala: 18:20, 22:25, 00:50.  
Larunbata: 20:20, 22:25, 00:50.  
Igandea: 20:20, 22:25.

**Sonic: La película**  
Ostirala: 15:45, 17:55, 20:10.  
Larunbata: 15:45, 17:55.  
Igandea: 15:45, 17:55.

**Adú**  
Ostirala: 16:30, 19:00, 21:30.

Larunbata: 16:30, 19:00, 21:30.  
Igandea: 16:30, 19:00, 21:30.

**Cuestión de justicia**  
Ostirala: 22:20, 00:05.  
Larunbata: 22:20, 00:05.  
Igandea: 22:20.

**La llamada de lo salvaje**  
Ostirala: 15:50, 18:00.  
Larunbata: 15:50.  
Igandea: 15:50.

**Hasta que la boda nos separe**  
Ostirala: 22:40, 01:00.  
Larunbata: 22:40, 01:00.  
Igandea: 22:40.

**Las aventuras del Doctor Dolittle**  
Ostirala: 15:45.



## LABURPENA

### Mujercitas

**Zuzendaria eta gidolaria:** Greta Gerwig. **Musika:** Alexandre Desplat. **Argazkia:** Yorick Le Saux. **Herr.:** AEB (2019). **Antzezleak:** Saoirse Ronan, Timothée Chalamet, Emma Watson, Florence Pugh, Eliza Scanlan, Laura Dern, Meryl Streep, James Norton, Louis Garrel, Bob Odenkirk, Chris Cooper, Tracy Letts, Abby Quinn. **Iraupena:** 135 minutu.

## Ametsak egia bihurtzeko borroka

*Mujercitas* Louisa May Alcott idazlearen eleberriz egindako eta hainbat idatzietan oinarritutako filma ikusi ahalko da igandean, helduen zinema atalean.

Greta Gerwig estatubatuar zinema zuzendariak moldatu du oraingoan March ahizpen istorioa.

Nazioarteko sariketa ezberdinetan hautagaitzak eta garaikurrak lortu ditu filmak. Oscar Sarietan sei hautagaitza izan zituen, hala nola, film onenaren eta egokitutako gidoi onenaren eta egokitutako gidoi onenaren sariak barne. Bakarra lortu zuen, ordea, jantzi-diseinu onenaren saria.

Sezesio-gerra garaian eta ondorengo urteetan, Amy, Jo, Beth eta Meg, March ahizpen bizipenak irudikatzen ditu moldaketa berriak. Massachusetts estatua gerra betearen dago eta aita gudara doa.

Amarekin geratuko dira lau ahizpak eta izebaren laguntza ere izango dute. Izan ere, lau emakume gazteek euren kulturarekiko interesak baitituzte. Jok, esate baterako, idazlea izan nahi du; Amyk margolaria eta Bethrek musikaria. Euren arauen arabera bizi nahi dute eta horrek esperientzia berriak bizitzera eramango ditu.

# Pertsonaia ezagunekin izoztutako hainbat une

Pertsonaia ezagun bat baino gehiago jarri da Iñigo Artola lasarteoriatarren kamera aurrean. Berak ere galdu du kontua dagoeneko, baina herriko aldizkariari ekarri dizkio, besteak beste, hainbat kirolari, aktore eta umoristekin izoztutako uneen irudiak

## Txintxarri

Iñigo Artolaren egunerokoan ez du hutsik egiten argazki kamerak. Sakelan sartu, eta prest izaten du beti edozein une berezi izozteko. Horrela bildu ditu denbora luzez bizitakoak; selfietan. Baina selfie horietan, ordea, ez da bere burua bakarrik agertzen; pertsonaia ezagun asko agertzen dira bere ondoan.

Urteak daramatza Donostiako Zinemaldira, Zubietako futbol zelaira edota herriko musika emanaldietara gerturatzen; horrela, hitzordu horietan topatutako zinemagileak, aktoreak, futbol jokalaria eta musikariak, besteak beste, ezustean harrapatu eta horiekin ateratako argazkien bilduma ederra osatu du dagoeneko. Azken aldian topatu dituen zenbait pertsonaiekin ateratako argazkiak ekarri ditu TXINTXARRI-k orrialde honetara.

Ikus daitekeen moduan, Fernando Esteso umoristarekin, Pablo Rivero aktorearekin, Martin Odegaard futbol jokalariaekin, Santi Cañizares kirolariarekin eta Marcelo Nicola saskibaloitzailearekin harrapatu ditu herritarren argazki kamerak.



Fernando Esteso aktore, gidoilari eta umoristarekin. IÑIGO ARTOLA



Pablo Riverorekin ere atera du argazkia Donostiako Zinemaldian. IÑIGO ARTOLA



Errealeko jokalaria Martin Odegaard ere harrapatu du Iñigoren kamerak. IÑIGO ARTOLA



Santi Cañizares ere topatu du, inoiz, Donostian Iñigo Artolak. IÑIGO ARTOLA



Marcelo Nicola saskibaloitzailea ezagutzeko aukera ere izan du. IÑIGO ARTOLA

**2mó/**  
graduatu erreflexuen  
aurkako lenteekin / **99€**  
(bat eguzkitakoa izan daiteke)



Gure betaurreko guztiak  
**bilduma berrietakoak dira**



Konkultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.  
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

R.P.S. 175/15 I.L.G.

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE-ORIA**

**MULTIÓPTICAS**

www.multiópticas.com